

## Irakurketa

Aiaraldeko Gazte Koordinadora Sozialistako kideok, hasteko, gazte koadrilla honi guri elkartasun guztia adierazi nahi diogu. Bestetik, Malenek azaldutako gertakien logika politikoan sakondu nahi dugu. Izan ere, Amurrioko gazte koadrilla honek larunbat gauean Laudion jasan zuen jazarpen poliziala ez da gertakizun isolatu bat, geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari den biolentzia forma baten beste adibide bat baita.

Egungo egoera ez da batere atsegina gazte langileontzat. Krisialdi ekonomiko kronikoa bizitzen ari da egungo kapitalismoa, eta horren albo-kalteak pairatzen ari gara gu. Oinarrizkotzat geneuzkan eskubideak ezabatzen ari dira eta askatasun ezak zein ziurgabetasunak ezaugarritzen dute gure bizimodua. Soldaten beherakada, lan-kaleratzeak, bizitzaren garestitzea, eta horrekin batera gazte kriminalizazioa... Hori da proletariotzaren errealitate gordina: gure beharrianak asetu ez eta gainera, gure bizi-eredua legez kanpokotzat jo nahi du burgesiak.

Gaurkoan salatzen ari garen gertakari hauek krisi kapitalistaren ondorioz Estatuaren eta indar polizialen partetik handitzen ari diren adierazpen biolentoen adibide argiak dira. Burgesiak ziurgabetasun egoera honetan, bere aginte-gaitasuna inposatzeko beharra du eta zatiketa soziala areagotzen ari den bitartean, diziplinamendua eta autoritarismoa indartzen ditu, tartean indar-polizialak. Izan ere, krisiari aurre egiteko neurrien artean indar polizialen gastu eta aurrekontuak igotzea aurkitzen dira. Hau guztia gainera alderdi politiko guztien oniritziarekin gauzatu da. Politikari profesionalen lanak errepresioa zuritu eta ordena burgesa legitimatzea da, euren pribilegioak babesteko asmoarekin. Argi geratu dadin, arazoa ez da polizia-eredua; arazoa polizia eta bere klase funtzioa dira.

Gazte langileoi egoera honen aurka antolatzea eta borrokatzea baino ez zaigu geratzen; egun dugun testuinguruaren aurka geroz eta jende gehiago batu dadin. Hortaz, gertakari hauei aurre egiteko berme bakarra antolakuntza politikoa hedatzea dela defendatzen dugu. Gazte langileriaren babesgabetasunari aurre egingo dion proiektu politikoa indartzen jarraitzea alegia. Hau guztia dela eta, larunbatean atxilotutako gaztearen eta bere lagun guztien absoluzioa exijitzen dugu.

Jazarpen poliziala borrokatu!